

# Herensugearen bitxia

**L**ehenago zuhaitzak zerraz eta aizkoraz botatzen zituzten eta basoan lan horretan aritzen ziren gizoni "Baso-mutil" esaten zitzairen. Behin horietako batek sekulako ekinaldia egin ondoren, basoan egin zuen lo.

Goizaldera Herensugea ikusi zuen zuhaitz artean. Animaliak harri bitxi bat zeukan buruan, iluntasunean disdira gorriska eragiten zuena.

Baso-mutila oso beldurtuta zegoen arren, Herensugearen atzetik abiatu zen. Piztitzarra aintzira batean murgildu zen buruko bola gorri hura urertzean utzita. Baso-mutilak, taka, poltsikoan sartu zuen, bai, harri bitxi hura lapurtu egin zuen eta Herensugeak berehala eraso. Graaaaust! Hego beltzak zabaldu eta hortzak erakutsiz jauzi egin zuen. Mutilak klaska! aizkorakada bat jo zion begien artean eta Herensugeak ihes egin zuen, narras, odolusteko zorian.

Baso-mutila pozik itzuli zen herrira. Gixajoa! Etzekien lapurtutako bitxia sorginduta zegoela.

Herrian inork etzuen ezagutu, ez perratzaileak, ez okinak, ezta bere emazteak ere.

- *"Nongoa zara, agurea?"*, galdetu zion emazteak.

Agurea?. Zer esan nahi ote zuen hitz harekin? Baso-mutilak bere eskuak zimurtuta eta dardarti ikusi zituenean zur eta lur geratu zen. Ispilu baten aurrean jarri eta bere burua aguretuta ikusi zuen: ilea urdinduta, konkortuta...

- *"Eta zertarako ipini duzu harri koskor hori mahai gainean?"*, galdegin zion emazteak.

- *"Harri koskorra?"* Bitxia harri bilakatua zen, harri arrunta besterik etzen. *"Leher eginda nago"*esan zuen agureak. Etzuen beste ezer esateko indarrik bildu.

Emazteak ohean sartu zuen eta harrezkero agureak ezto begirik ireki.

Aintziran noizbehinka Herensugearen marruak entzuten dira eta etxean baso-mutilaren emazteak senarraren zain jarraitzen du.

